



Judit Roura, Trans*forma la Salut plataformako kidea: “GENERO NORTASUNA ESKUBIDE ZIBIL BILAKATZEA DA ERRONKA”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Urriaren 24an Kataluniako Osasun Sailak Trans*forma la Salut plataformarekin batera aurkeztu zuen pertsona transexualentzako osasun arreta jarraibide berria. Transexualen oinarritzko eskubideen aldeko bederatziz elkarrekin biltzen dituen plataformak helburu bakarra du: orain arte osasun sistemak ezarritako bazterkeria amaitzea. Lorpenaren eta erronka berrien inguruan mintzatzeko elkartu gara plataformako eta Generem elkarteko kide Judit Rourarekin.

Laster hiru hilabete beteko dira jarraibide berria aurkeztu zenutenetik. Emaitzarekin pozik?

Zalantzarik gabe albiste ona da, aspaldiko borroka baten emaitzak iristen hasi direlako. Hala ere, azpimarratu nahi dugu, jarraibide berria dagoeneko martxan den arren, oraindik ere hamaika ñabardura daudela zehazteke. Izan ere, urriaren 24an aurkeztu genuena, jarraibide bera baino, asmoen adierazpena da.

Egunerokoa zer dakar?

Aurkeztu genuen dokumentuak Transit zerbitzua jarri du martxan Kataluniako Osasun sisteman. Horrek orain arte falta zen zerbitzu esplizitua ahalbidetzen du pertsona *trans*-entzat; batez ere, *trans* izatea aurrerantzean ez da patologia izango eta aniztasuntzat hartuko da. Berrikuntzen artean, transexualok osasun sistemaren oinarritzko sarean egotea ahalbidetuko du, adibidez.

Zuen eskakizun bati erantzunez jarri da indarrean eredu hau.

Egia esateko prozesua uste baino azkarragoa izan da, eta urte eta erdi baizik ez dugu behar izan lehen lorpen honetara iristeko. *Trans**forma la Salut plataforma osatzen duten elkarteetako batek, Generemek, bota zuen ideia lehenengoz. Duela hilabete gutxi arte transexuala izatea patologiatzat jotzen zuen osasun sistemak, eta horri buelta emateko borroka abiatu genuen. Generem elkarteak zirriborro bat idatzi zuen, baina aurki ikusi zuen bere kabuz ez zuela indar nahikorik eta helburu berdina zuten gainontzeko elkarteen sarea osatzea izan zen irtenbidea. Guztion artean zirriborro hura osatu eta ekainean aurkeztu genuen Parlamentuan. Sare hori osatu izana gakoa izan da. Gainera, arazoarekin batera irtenbidea ere jarri genien mahai gainean.

Orain arte Kataluniako osasun sistemak Nortasun Generoaren Unitatearen bitartez (UIG) artatu izan ditu pertsona transexualak. Oker ez banago horren kontrako salaketa ere jarri zenuten jarraibide berria aurkeztean.

Bai, guztira 70 testigantza bildu genituen, sistema horren erabateko diskriminazioa agertzeko asmoz. Esaterako, emakume *trans* batek lesbiana zela esaten bazuen ez zuen hormona tratamendurako eskubiderik, transexuala



izan ordez trabestizat jotzen zutelako. Edo, adibidez, 50 urtetik gorakoek ez zuten zirujararako eskubiderik. Umiliagarria zen.

Eredu berriak ordezkatu eta, ondorioz, desagertu egingo da UIGa?

Guk desagertzea eskatzen dugu. Eta batez ere ez dugu birziklapenik onartuko, hala izango balitz osasun sistemak jarraituko luke *trans*-ok patologizatzen. Baina, zoritxarrez, oraingoz ez da desagertu.

Uste duzu gizartea desinformatuta dagoela transexualari dagokienez?

Erabat. Tira, desinformatuta ez, gizartea deformatuta dago, goitik behera. Estigma sozialak sekulako karga du eta emakume *trans*-ok zama hori daramagu gainean. Prostituzioa, drogadikzioa eta bestelakoak egozten zaizkigu beti. Hitz gutxitan, gizartearen zaborra gara. Sekulako diskriminazioa dago. Eta gizon transexualak, aldiz, isilarazten dira. Baina gu gizartearen parte garenez, gizartearen errekonozimendua behar dugu.

Eredu berriak badakar prozedurarik formazioari dagokionez?

Hiru heziketa ardatz proposatu ditugu. Lehen orokorra da eta gizarteari zuzenduta dago, transexualak pertsonak garena argitzeko. Bigarrena osasun sistemari zuzenduta dago, transexualok medikuarengana joaten garenean jakin behar duten informazioa eta zer egin behar duten eta zer ez barneratzen duena. Eta hirugarrena osasun sistemako profesionalei zuzendutakoa da; alegia, pertsona transexualekin zuzenean lan egiten dutenentzat formazioa da. Ezjakintasun itzela dago eta sekulakoak jasan ditugu.

Adibiderik?

Zein erantzun eman behar zaio prostataren azterketa behar duen emakume transexual bati? Eta gizon trans batek seme-alabak izateko intseminatu nahi badu? Ezinbestekoa da transexualek azpigeneroa duten pertsonak dituzten eskubide berberak izatea. Ez du axola nondik zatozen baizik eta zer zaren. Orain arte, osasun sistemak ez du hori bermatu, tokian tokiko profesionalen nahiaren menpe jokatzen zuten, politika zehatzik ez zegoelako. Ikuspegi kon-tua da.

Azken erabakia pertsonarena izatea da erronka?

Zalantzarik gabe. Gaixotasun bat ez denez medikuak ez du hitzik. Noski, gomendioak eman ditzake, prozedimendu orok eduki ditzakeen onurak eta arriskuak jakinarazteko, baina onartezina da erabakia euren esku egotea. Medikuen lana pertsona transexualen behar-ak asetzeta da. Ez dago irtenbide orokorrik.

Osasun sisteman eman duzue lehen urratsa. Aurrerantzean hezkuntzarako edo justiziarako jarraibiderik sortzea aurreikusi duzue?

Bai, baina poliki-poliki. Garrantzitsuen osasunarena da, zalantzarik gabe, hil edo biziko arazoa baita. Bidegabea eta onartezina da transexualak gaixotzat hartzea eta horri buelta eman behar zitzaion. Genero nortasuna jaiotzatik esleitutako ezaugarria izateari utzi eta eskubide zibil bilakatzea da gure erronka. Borroka hori ez da *trans*-entzat onuragarria bakarrik, baizik eta gizarte osoarentzat. Gu aske garen egunean zuek askeago izango zaretelako. Gero etorriko dira besteak...

Solas egin dezagun ebakuntzez. Duela gutxi arte adin-muga zegoen. Eredu berriak berrikuntzarik dakar?

Bai, ez da adin mugarik egongo, adinarena erabat artifiziaia baita. Esate baterako, munduan 10 urterekin hilekoa jaistea ekiditeko hormona blokeatzaileak hartzen dituzten neskatoak daude barra-barra. Beraz, ez du zentzurik pertsona transexualei adin-muga jartzeak. Noski, badakigu hormonon prozedurak izan ditzakeela ondorio positiboak zein negatiboak. Baina osasunerako ez da kaltegarria. Besterik gabe, gorputzak berez egingo lituzkeen aldaketak ez lirateke egingo, eta kito.

Pertsona transgenderoen arazo nagusietako bat izaten da, bertzeak bertze, ebakuntzak egiteko dagoen zerranda luzea. Azken urteotan aldaketarik egon da?

Ebakuntza kopuruak gora egin duen arren, itxarote zerranda oraindik ere sekulakoa da. Lehenago hamabost urtekoa zen, orain murriztu egin da. Guk eskatzen duguna ez da abantailarik izatea, gainontzeko itxarote zerrenden maila berean egotea baizik.

“Proposatu dugun heziketa ardatzetako bat osasun sistemako profesionalei zuzenduta dago; ezjakintasun itzela dago eta sekulakoak jasan ditugu”

“Katalunian onartutako jarraibideen arabera, ‘trans’ izatea aurrerantzean ez da patologia izango eta aniztasuntzat hartuko da”

Zein duzue aurrerantzean erronka nagusia?

Aniztasun hau gizartearen ikuspegi guztietan integratzea. Gizarteak aurrerapausoak eman ditu, baina hainbat ikuspuntutan atzerakoiegia da oraindik ere. Pertsona *trans*-ok bazterkeria jasaten jarraitzen dugu, eta batzuek hori justifikatzen dute *trans* izatea bizipen gogorregia dela esanez. Ez zaie arrazoirik falta, baina badira beste hamaika bizipen gogor: haur bat izatea, banaketa bat... Eta ez gara psikiatria bidez konpontzen saiatzen. Askatasunaren barruan dau-den erabakiak dira, eta logika berean, genero nortasunak erabaki askea izan beharko luke. ■



BLOG IZARREN BILA

Eman izena!

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra

200€ diru txekia

ARGIA kolaboratzeko aukera

KATEGORIAK

Kultura / Gizarte eta politika / Aisialdia / Zientzia eta teknologia

Antolatzailea: **AZKUE**

Laguntzailea: **ARGIA**

Proposatu zeurea edo gehien atsegin duzun bloga izena emateko epea: urtarrilak 16 - otsailak 13

blogetan.eus